

Aurten Arrasateko 15 garren. Sevena jokatuko dugu, ekainaren 1an, Mojategiko instalazioetan, gizonezkoen kategorian.

Aurten ere gure lehiaketak, zelai osoan jokatuko dira.

Eskualde mailakoa bada ere, beti parte hartzen du maila egiaztatua duen talde frantziar batek gutxienez, eta horrek kirol maila handitzen du eta irabaztea zailago bihurtzen.

Aldi berean, jai giro handiagoan baina, Garagardo Festa ere ospatuko dugu, Arrasateko Herriko Plazan jarritako karpan.

Lehiaketa 15:00etan hasiko da, eta sari banaketa karpan egingo da, 20:30ean.

Jarraibide orokorrak

- Gizonezkoen mailan gehienez ere 12 taldek emango dute izena, eta eskaera iritsi eta ordainketa egin ahala antolatuta.
- Talde bakoitzak gehienez ere 12 jokalaria izango ditu, eta horiek federatuta egongo dira; antolakuntzak ez du bere gain erantzukizunik hartuko lehiaketan zehar Federazioaren fitxa indarrean ez duen edozein jokalariri gertatutako lesioengatik edo gorabeherengatik.
- Izena emateko, talde bakoitzak, 120€ ordaindu behar du, Euskadiko Kutzako 3035 0055 19 0550008408 kontuan, maiatzaren 28aren aurretik, klubaren izena zehaztuz eta SEVEN Arrasate kontzeptua adieraziz.
- Kuota horrek eskubidea ematen du lehiaketan parte hartzeko, partidetan ura eta fruta eskuratzeko eta Garagardo Festaren karpan egingo den afarira joateko.
- Parte hartzen duten talde guztiek lehenbailehen bidali behar dute: taldearen izena, arduradunaren izena eta horren telefonoa eta helbide elektronikoa, Sevenaren inguruko xehetasunak, albisteak edo gerta daitezkeen aldaketak jakinarazteko.



XV. ZAZPIKO ERRUGBI LEHIAKETA

2013 ekaina 1an

info@arrasaterugby.eu

696.334.912

Arauk

- Lehiaketan aurretiazko fase bat jokatuko da, zozketan osatutako bi multzorekin.
- Aurretiazko faseko partidak 7 minutuko bi zatitan eta atsedenaldira batekin, eta finalerdietarako multzo bakoitzeko lehenengo bi taldeak sailkatuko dira.
- Bonusak ez dira kontuan hartuko, soilik garaipenak (4 puntu) eta berdinketak (2 puntu).
- Finalerdiak multzo bateko lehenengoa beste multzoko bigarrenaren kontra, eta alderantziz.
- Finala jokatuko da, bi finalerdiak irabazi dituztenen artean.
- Finaleko zatiak 10 minutukoak izango dira.
- Ezin da talde batekin baino gehiagorekin parte hartu.
- Jokoa bete beharreko erregelamendua IRBean indarrean dagoena da.

